

IGANDEKO BERRIA  
2020ko ekainaren 21a

Ekonomia **Horion** 21

# Hidrogenoaren apustua

**P**andemiarena txiki izaten duen olatua dator-  
kio gainera gizateriari  
klimaren aldaketa. Ha-  
ren ondorioak jada ant-  
zematen hasita da  
mundua, eta beroketa globala ahalik eta  
gehien, ahalik eta bizkorren murrizten ez  
bada, latzak etorriko dira.

CO<sub>2</sub> isurketak dira beroketa horren  
erantzule nagusiak. Eta, hain zuzen, isuri  
horiek gutxitzeko modu bat ezagutu berri  
dugu, eraginikorra eta bizkorra. Kalkulatu  
dute CO<sub>2</sub> isurketak %17 murriztu  
direla munduan, herriarrak CO-  
VID-19arengatik



GEURE KONTU  
Irune Lasa

diren bitartean, isurien eta kutsa-  
duraren arazo-  
ren neurria ikusteko baliagarria izan da  
- itxiaklia, eta baita irtenbidetako erroka-  
ren tamainaz jabetzeko ere.


Europako Batasunak karbonogabetea-  
ren aklapustua egin du, eta, Itun Berdea  
goiburua, 2050. urterako klima neutralta-  
suna jarri dio helburu bere buruari. Ho-  
rrek esan nahi du urte horretarako berote-  
gi gasak neutralizatu, konpensatu edo ha-  
mapatzeko sistemak eratzitako  
bolumenak handiagoa izan beharko duela  
Batasunetik at mosferan atakogasen bo-  
lumen baina. Hori lortzeko moduetako  
bat izan daiteke, Batasunaren muez, hidro-  
genoa.

Uztail hasieran jakinarazi du Europa-  
ko Batzordeak bere Hidrogenoaren Estra-  
tegia, baina haren nondik norakoaren zai-  
tzu bat ikus daiteke hain zuzen orain Bata-  
suneke lehendakari izan hartuko duen Ale-  
maniaren estrategian: 7.000 milioi euro jar-  
riko ditu hidrogeno garbiaren inguruko  
teknologia eta negozio berriak sustatzeko.

Ez da gauza berria, eta gaur egun ere  
ekoizti eta kontsumitzen da hidrogenoa  
Europan bertan. Baina hidrogeno horretatik  
gehiena ekoizteko, iturri fosilak erabili-  
zen dira: prozesua garestia da, eta erabili-  
ra gehienetan hidrogeno baina efizientzia  
handiagoa teknologiak existitzen dira.  
Horrek esplikatzeko zergatik izan duen  
orain arte hidrogenoak halako arrakasta  
eskasa.

Baina gauzak aldatu egiten dira: horren  
erakusle Alemaniaren eta Europa iparal-  
deko herrialdeen apustua - eta laster bate-  
an Europarena -. Ez da kasualitatea apustu  
hori egin duten herrialde horiek haize  
errotaz beteko den Ipar Itsasoaren kostal-  
dean egotea. Izan ere, iturri berriztagarriek  
egin dute hidrogeno garbia posible. Argin-  
dar horrekin ekoiztita, orduan bai, bihur  
daiteke hidrogeno erabilgarri karbonoga-  
betezako.

Hala ere, erroka asko ditu hidrogenoak  
egiaz baliagarri izateko. Ekoizteko garestia  
izaten jarraitzen du, eta haren efizientzia  
ere hobetu beharko litzateke. Adibidez,  
garraio arinerako askoz ere hobetoagoak di-  
ra bateriadun ibilgailuek elektrikoak. Inor  
gutxi ikusten du, oraingoz, hidrogeno  
baterien lehialde izan daitekeenik.



Petronoren findegia, Muskizen (Bizkaia). LUIS SALGUEGALZDO / FOKU

Bateriak iristen ez diren tokira iristeko  
gai izan daiteke, ordea. Maerks itsasontzi  
enpresa handia, esaterako, bazkide da Da-  
nimarko hidrogeno garbiarekin erre-  
gialak ekoizteko abiatu den proiektu bate-  
an. Bultzatzaileek uste dute industria astu-  
na eta garraio bide handiak  
karbonogabetezko modua izan daitekeela  
hidrogeno, isuriak konpensatu ditzake-  
elako, CO<sub>2</sub> erabiliko delako, esaterako  
erregai fabrikazioan.

Bateriak oso garestiak zireneko eta au-  
tonomia oso gutxi eskaintzen zuteneko  
egunak ez daude horren urrun. Lor al-  
dezake hidrogenoak arrakasta bertusa? Itxa-

ropen hori dute gobernuak eta Europak.  
Eta bateriekin egin bezala, hidrogeno-  
ekin ere salatu nahi dute.

Abagune horretan, Repsolek eta Petro-  
noren Bihotxo Puruan hidrogeno garbia  
erabiliz erregai sintetikoak ekoizteko lan-  
tegia enalko dutela inagarrri dute aste ho-  
netan. Negozio gutxi egingo dute oraindik  
hortik, izatez teknologiak probatzeko lan-  
tegia delako. Apustu bat.

Lantegiak eskura izango du Repsolen  
penintsulako haize errota eta zeki fotovol-  
taikoetako argindarra, kilometro gutxira  
Petronoren beraren CO<sub>2</sub> a, eta ez oso  
urrun etorkizuneko bezero izan daitezke-  
en altzairutegi, kimika lantegi eta antze-  
koak. Oinarri horietatik karbonogabete-  
zako teknologia eta industria baliagarriak  
etorriko diren ala ez, hori denborak eran-  
tzango du.

Eta erantzun horren arabera izango  
da Petronoren beraren etorkizuna.  
«Etorkizuneko Petronor» alpatuzuen en-  
presaren lehendakariak, Emiliano Lopez  
Atxurak, lantegiaren berri emateko aur-  
kezpenean. Klima neutraltasunean nekez  
egongo balta oraingo Petronorrik.

**Bateriak oso garestiak  
zireneko eta autonomia  
oso gutxi eskaintzen  
zuteneko egunak ez daude  
horren urrun. Lor al-  
dezake hidrogenoak  
arrakasta bertusa?**

## 'PENSIOEN GEROA Eztabaida sozial baterako gakoak'

Jon Fernandez

Pensio sistema publikoaren "krisia" hobeto ulertzeko gakoak eskaintzen dituen liburua.

• Ekainaren **22tik 24ra**, liburuaren 1. atalaren **deskarga doan**:

**Berria.eu/aleka/pensioen-geroa**

aleka

berria

elkar

Jakin

